

Derioko Udalaren 2026ko maiatzaren 19ko Alkatetzaren 2026-0302 Dekretuaren bitartez honako laguntza hauen deialdia onetsi zen: Derioko udalerriko eraikinetako fatxadak garbitzeko dirulaguntzak norgehiagoka bidez emateko deialdia.

BDNS (Identif.):

Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorraren 17.3.b eta 20.8.a artikuluetan xedatutakoaren arabera, deialdiaren laburpena argitaratzen da. Horren testu osoa Dirulaguntzen Datu Base Nazionalean kontsulta daiteke (<http://www.pap.minhap.gob.es/bdnstrans/index>):

Lehenengoa. Onuradunak:

- a) Derioko udalerrian dagoen titulartasun pribatuko eraikinen bat jabetzan duten pertsona fisikoak edo juridikoak.
- b) Jabeen erkidegoak.
- c) Titulartasun publikoko eraikinen baten titularrak diren entitateak, betiere deialdian ezartzen diren baldintzak betez

Bigarrena. Helburua:

Dirulaguntza honen xedea da Derioko udalmugartean pintaketak edo grafitiak dituzten eraikinen (titulartasun publiko nahiz pribatuko) fatxadak garbitzeko gastuak osorik edo zati batean finantzatzea.

Hirugarrena. Oinarri arautzaileak:

2026ko apirilaren 20ko Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratutako oinarriak.

www.bizkaia.eus/lehendakaritza/Bao_bob/2026/04/20/II-1889_cas.pdf

Laugarrena. Zenbatekoa:

Laguntza hauetarako gehieneko kreditu erabilgarria 20.000 euro da 1500.48100 aurrekontu-aplikazioaren kargura

Bosgarrena. Eskabideak aurkezteko epea:

Epe 2026ko ekainaren 1ean hasi eta irailaren 30ean amaituko da.

